

Lide Urteaga Riaño

F maila • 2 saria

Kaixo!

Lide nauzue, La Salle-San José ikastetxeko ikaslea. LHko 3.mailan nago eta ilusio handiz idatzitako istorioa eskeintzera natorkizue. Ea zer diozuen...

Nire zaletasunak pianoa jotzea eta margotzea dira; kirola egitea ere atsegin dut. Nire lagunekin primeran pasatzen dut eta parkean emandako orduak oso dibertigarriak dira.

Sari hau nire familiari eskeintzeaz gain, etorkizun hobe baten bila, gure herrira datorren orori eskeintzen diot.



ALIKA

Martxoaren 20a, asteazkena.

Zarata, iskanbila eta kontu ugari artean gelan sartu gara. Dagoeneko andereñoa barruan da. Ezpainak gorri-gorriak ditu eta bere ile luzea motots dotore batean bilduta dauka. Askok gustatzen zait nire andereñoa barre asko egiten duelako.

Martxoaren 21a, asteartea.

Ataritik gatoz. Mikelek eskuak zikin-zikinak ditu eta andereñoak eskuak garbitzera komunera bidali du. Sorpresa bat omen dauka guretzat eta berehala etortzeko esan dio. Iupiii!! Sorpresa bat? Zer izango ote da? Andereñoak lasai geratzeko esan digu eta denak isil-isilik berria entzun dugu: datorren ostegunean ikaskide berri bat izango dugu gelan, Alika izeneko neskatila afrikarra.

Martxoaren 22a, asteazkena.

Ettxera joan naizenean zuzenean logelan sartu naiz eta apaletik munduko-bola hartu dut. Argitxoa piztu eta mundua bira eta bira jarri dut eta ttak! Hara hemen Afrika! Andereñoak arrazoia zeukan Afrika kontinente oso handia dela esan zigunean. Alika Afrikatik dator bai, baina nondik? Bihar jakingo dugu. Orain lotara noa, neka-neka eginda nago eta.

Martxoaren 23a, osteguna.

Osteguna! Osteguna! Alika ezagutzeko eguna iritsi da. Korrika eta presaka gosaldutxo hartu, motxila hartu, nire zaintzaileari musu eman eta ziztu batean kalera irten naiz. Eskolarako bidean Ane eta Iratirekin topatu naiz eta Alika nolakoa izango den imajinatzen aritu gara. Txirikordak eramango al ditu? Iratik,, telebistan agertzen diren neska afrikarrek, txirikorda pila bat eramaten dituztela esan digu baina Iratik arrazoia duen ala ez ikusiko dugu. Gaur gelan andereñoa ez dugu topatu.

Bere orde zuzendari jauna dago eta serio samar esan digu:

- Andereño Maite segituan etorriko da.

Hau esan bezain laister gure andereñoak atea ireki du. Aliko eskutik emanda dator. Txokolatearen kolorekoa da, begi handi-handiak eta beltz-beltzak ditu. Buruan motots txiki pila bat ditu kolore askotako gomatxoekin jasota: urdinak, berdeak, horiak, laranja, arrosak eta moreak. Bere buruak Erromako zubia ematen du eta bere soinekoa opariak biltzeko papera bezain koloretsu eta dizdiratsua da. Aliko, txokolatezko neskatila afrikarrak irrifar gozoa egin du. Aliko atsegin dut.

Martxoaren 24a, ostirala.

Gaur goizean, Alikari, egindako marrazkiak eman dizkiogu eta asko gustatu zaizkiola iruditzen zaigu. Andereñoak Aliko nire ondoan eseri du eta begia kliskatu dit. Lagun onak izango garela uste dut. Eskerrak Beñaten ondoan ez duen eseri! Beñatek mukiak jaten ditu eta andereñoak beti errietan egiten dio.

Martxoaren 25a, larunbata.

Munduko andereñorik martxosoena daukat! Eskolako patioa festa handi bat da! Berak esan bezala, bakoitzak janaria etxetik prestatuta ekarri dugu: Peruk, patata tortila; Iratik, txorixo egosia; Anek, entsalada handi bat; eta nik, amonarekin egin ditudan kroketa goxoak. Musika, dantza eta jolasak ikaskide berriari ongi etorria emateko. Aliko, txokolatezko neskatila, ongi etorri gurerak!